

ARLEGUI
ARRIETA Y SALGOU, S. R. C.

Teleikuskiñak

Radioak



etxearen banatzallea

Urbietta, 26 Urrut. 14255

Zeruko ARGIA

Idazkola ta Banakola: Okendo, 22 - San Sebastián - Tel. 26666 - Prezioa 3 pezeta

ARLEGUI
ARRIETA Y SALGOU, S. R. C.

Izozgileak (Frigorifikak)
Sukaldeak
Garbikiñak
Termoak

Edesa'ren
banatzallea

Urbietta, 36 Urrut. 14255

Beranduko apaizgaientzat etxe bat Rikardo Arregi saritua

"Manterola ikasaldiak" Azkoitia'n Ipar aldeko Orkestra Nagusia sortzeko

Gure apaizgaietegiak txikitatik artzen dituzte geinertan apaizetarako deia somatu duten gazteak. Baiña tarteka, sortzen dira beranduko dei edo bokazioak ere. Beste karretan ibilli ta gero, amazapzi urtetik gorako gazte zenbaitek, apaizetarako deia aditu izan dute.

Auek dira aitatu nai ditugun apaizgai zaarrak.

Alde guzietan gutxitzen ari dira elizarako deiak. Naparroa'n berdin jarraitzen dute erri txikitetan, baiña Iruñe'n zer bait gutxitu dirala ikusten da. Orregetatik beranduago apaiz-deia artzen duten gazteentzat berebiziko gertaketa komeni litzake. Gazteegi apaizgoa aukeratzen dutenen artean, asko ta asko atzeratu

egiten dira gerora. Gerora, urteetan aurrera artzen ditugun erabakiak, sendoagoak eta iraukorragoak izan oi-dira.

Au ikusirik, Iruñe'ko Gongotzaiak etxe bat eskeini die apaizgai zaarreo. Sei dira lenengo urte onetan eta filosofira arte, beste apaizgai gazteagoandik aparte egingo dituzte alkarrekin beren ikasaldiak. Gero Filosofia ikasten asten diranean, beste gazteagoekin batuko dira ikasaldietan.

Sei apaizgai zaarrago auek apaiz batekin jarri dira etxe orretan, sukalde bateko semeak bezela beren bizibidea egiten. Eliz Amak guzien bearra du apaizik gabe dauden lurraldeetan zabaldu ditezten gure arteko elizgizonak.

ango «Bial»ean. Bertan era guzietako erri lanak agertu oi dira, margolaritza dala, eskultura dala, musika dala ta abar. Eta Erti-Billera orretan Mercero'k bere pelikula labur «Troiti Troteras» izenekoarekin beste sari bat iritxi du.

Paris'tik itzuli danean, bere errian itzaldi bat eman du Paris'ko billera orren inguru gertatutakoekin. Gerorako ere ba-ditu beste pelikula batzuek asmatan.

BILBO'KO MUSEO BERRIA

Urteetan ezagutzen degu Bilbo'n «Museo de Bellas Artes» izenarekin, gure ertiarren erakustokia. Amabost urte aurretan Krisanto Lasterra jauna da Museo orren Zuzendaria. Jaun au, oraintxe asko ezjala Prantziak Belgika aldean ibilli da, ango Museoak ikusi ta Bilbo'n egin nai dan «Gaurko Museo Berria» nola obeto antolatu ikusteko.

Bere lagun eman ditu ibillaldi orretan. Diputazio'ko erakille dan Libano jauna ta Bilbo'ko Udalaren erakille dan Beaskoa jauna. Bi Museo, batez ere, aintzat ditzugu; bata, Itxas-ertz Urdinean dagoen Alme Maeght jaunen Erakustokia ta «Leger» Museoak bestea.

Bigarrenen datorkigu obeto, gurea nola egin jakiteko. Bietan oso arretara ona arkitu omen dute ta ibilli-

Baiona'ko Kordelieren kalean degu «Eskual Idazkaritza» deitzen dan lantegi bat. Idazte lantegi orrek lengo urtean sortu zuan sari berri bat, LAUXETA zanaren izenokoa.

Lauaxeta saria urtero, euskal egunkari ta aldizkarietan idazten dutenen artean jokatuko zan. Igaz Juan Sanmartin izan zan saritua. Ta aurtien Rikardo Arregi izan da aukeratua.

Biak ZERUKO ARGIA'ko idazleak ditugu, ta orregetatik pozik ikusten degu sari auen etorrera. Rikardo Arregi, igaz ere oso urtean ibilli zan sari ontatik. Beraz aurtien berriro izan du igazkoaren berriete ta gantze ederra.

Gure zoriokak Arregi gazteari ta jarrai dezala gure aldizkari onetan bere orria betetzen.

Sari au, Baiona'n emango da Azaroaren 28'an, arratsaldeko bostetan esandako Kordelien kaleko idazkolan. Euskaltzaleak egun orretan badute, beraz, nun bildu ta alkarren ezagueria geitzeko aukera.

IPAR ALDEKO ORKESTA NAGUSIA SORTZEKO

Gure artean musika-zaleak ugari ta jayopak izan dira. Euskalerrriak beti izan du eresi-giro beroa. Erri-rik txikitetan, ikustekoak dira Meza Nagusietan gure kantari saiatuak. Utsaren truke lan egin izan dute urte osoan, gure elizetako koruetan.

Oietatik sortu izan dira gure abestaldeak eta soinu joilleak ere. Orkestra txiki ta aundiak ugari ikusi izan ditugu, batez ere gure Erri Nagusietan. Auetatik, esan bearrak ez, Bilbo izan degu nagusienetokoa.

Bilbo'n «Orkestra Sinfonika» izenarekin ezagutua izan dan orkestrak bere gora-berak izan ditu urteetan. Baiña beti irten du gora andik-edo emendik.

Oraingo ontan, beste asmo bat dabil musika-zalen artean. «Bilbo'ko Sinfonika» aldatu nai litzake. Ortarako. Errealde orren ordez, beste Orkestra aundiagoa sortu nai litzake, progintzari batuzen laguntasunarekin. Orkestra orri «Ipurraldeko Orkestra» jarri nai diote izena, ta au probintzi oietan diran orkestra batuta iritxi nai litzake.

Orkesta au ez da Bilbo'koa gizonteko sortu nai, ez. Guzien batasunak sortuko luken Orkestra Nagusia (10 garren orrialdean jarraitzen du)

"IV SYMPOSIUM" IRUÑAN EUSKAL PROLEMERI BURUZ

Abenduaren 6 eta 7-an izango da Iruñan «IV Symposium de Prehistoria Peninsular» osialokoa. Bere gaia, euskal kondaira surte eta etnolofjari buruskoa izango da.

Barcelona'ko Unibersidadearen Arkeoloji eta Prehistoria Institutioak antolatua da. Iruñeko «Principe de Viana» mintegiaren habesean. Biltzarren tokitzat Nafarroako museoan izango da.

Gaiaren mui nagusitzat aztertuko dira: orain arte, raño egin ezagutarazi, gai bakoitzean zer egin dan ikusi eta oiek jakin eta aintzatz arturik, gerorako egin, tsak zer bide izan bear duan aukeratu.

Biltzarraren gal nagusiak L. Pericot, A. Tovar, J. Caro Baroja, J. M. Barandiaran, J. Maluquer de Montes eta L. Mitxelena jaunen esku izango dira.

Orrez gainera, normaik du eskubidea Euskalerrriko arkeoloji, kondaira - aurre, etnolofj eta lekuntzari buruzko txostenak bialtzeko (zuzenbideztaf aski da: «IV Symposium», Museo Navarro - Pamplona) auefariako gaiten bat sakonduaz edo adieraziz, natz orokor edo gauza bereziren bati buruz.

Biltzarretan parte artu nai duenak edo bertara arpidendu nai duenak, 100 pezeta ordaindu bear ditu, aurrez biadurik bere erantzile zuzendari dan Prof. J. Maluquer de Montes, Director del IV Symposium, Instituto de Arqueologia y Prehistoria, Universidad, Barcelona, edo berdin da Museo Navarro, Pamplona. «IV Symposium»-erako dala esnaz, Erabiltzen diran gaietan eta jasotzen diran txostenekin, biltzarren ondorean, liburu bat arkitatuko da, eta parte artu dutenak edo eun pesetako arpidendutas egin dutenak 40 % merkeago izango dute.

«IV Symposium» au, euskal kulturarentzat aurrera-berantzeakoa izango da.

J. S. M.

«MANTEROLA IKASALDIK» AZKOITIA'N

Gure artean, jakintza taldeak ugaltzen ari dira zorienez, eta onek zer bait esan nai du geroko gure gazteentzako. Lengo gure lozorrotik esnatzen asiak gaude ta bide onek eramango gaitu gure izaera obeto ezagutzera ta indartzera.

Egun aurretan, beste talde bat sortu da jakintzarako gure Gipuzkoa onetan. Talde onek «Estudios Manterola» izena artu du. Ta asmoa ere agirian agertzen du, Joan dan gizalderdi ontako gertaerak eta edes-ia sakonago ikasten saiatzea.

Gaurko egoera nola etorri zaigun bidez-bide ta urterik urte ikusi nai dute. Eta lenbizi talde onek egin duan lana, Azkoitia'n itzaldi bat ematea izan da. Itzaldi au euskeraz egin du Arrue Antonio jaunak eta bertan entzuleak aditu zituzten gure azkenengo kartista gerrari buruz alde bateko ta besteko euskal bertsolariak sortutako itz nsurtuak. Sortu ditezela onelako talde asko, gure papal zarrak aztertzeko ta gerorago ta jantziago jarri gaitzen gure len-aldiko gertaeratan.

EUSKAL GIROA SENDOTZEN NAPARRUAN

San Zernin'go Oillarrek indarra artu du gure Euskal giroa esnatzeko bere Kukurukuaeren soinuaz. Naparrak ziran antziña «euskaldun» izenez ezagutuak. Gure egunotan alderdi aiek erdeldunduta dauzkagu ta gure aldera etorria da euskalduntasuna.

Baiña giro berrian, Naparrua zarrak bere lengo giroa esna-arazi nai du ta ortarako ari zaizkio laguntzen, bertako Unibersidadean sortu dan Euskal-Katedra» ta «Principe de Viana» Eraiguntza Diputazioak antolatua.

Oiekin batera ari da «Amigos del País» Eraiguntza ere. Aide onetan Naparrua'k bere lana edeki darama Euskera ta Euskalerrriko jakintzaren mesedean. Giro ta aide ortan, euskal-lana aurrera joango da, noski. Era orretan, Euskalerrriko seme nagusi dan Naparrua'k bere aurreneko lekua irabazi bear du.

ANTONIO MERZERO, LASARTEARRA PARIS'EN

Euskalerrrian ba-ditugu zine arazoan nabarmendu diran zenbait gizon. Oien artean bat, Antonio Merzero degu. Ezta gaurkoa, lasartear au zine kontuan. Donostia'n 1902 garren urtean egin zan Zine Jaialdian, bere mintz «Leccion de Arre» izenokoa saritua izan zan. Oraingoan Paris'en izana degu

SEMINARIOAREN EGUNA



Ona emen bi apats eta prakti dun bat. Agirian dute irurar gauza bat; kitarra. Onek, orain urte batzuek lenago, bat baino gelaoren esana arrotuko zuan; baiña gaur ez du inor izutzen. Apaizak bere agostoludatzarako okerrak ez diran bide ta tresnak ontzat artzen ditu. Kitarra, agian, apatzi-lana egiteko biderik eta tresnarik egokienetakoa izango da. Guzian saillera jotxi bearra dago: oraingo, gaurko musika saila degu. Ta au ere Jainkoarentzako eskuratu bearra degu. Onela, munduarekin beste artu-eman bat iristen da, ta apaizak ortarako dandue gizaretan. Bere bidecik dijoan munduari bidera lirtetzeko. Datoren ilabeteiko hortzagarren eguna. Sortze Garbiko Amaren Jala da, ta bide batez, Apabiztegioko Eguna. Apats gazteak kitarra esku netan dutela, ederki agertzen zaizkigu argazki onetan, gaurko munduari tresna orrekin del eguna.